



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 21a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako osasun arloko politika orokorrari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da atzera egin dezan Gizartetik bazterturik dauden pertsonen zuzendutako gizarteratze eta laneratze egitarauak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren IV. kapitulua indargabetzeko prozesuan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako legedia egokitu dezan abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatatik kendu den parte itzultzekoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandez Gurutze Erramudunari. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen baitio bere egin ditzan Nafarroako Parlamentuaren erabakiak. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deklaritzen baitu autonomia erkidegoek 2013rako duten defizit-betebeharra malgutzearen komenigarritasuna. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Cementos Portland enpresako langile den Epifanio Martín jaunarekiko kezka adierazten baitu, lan arrazoiengatik gose greba egiten ari da-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak lehendakariak asmorik duen Nafarroako Kutxatik kobratu dituen dietak itzultzeko, haren organoetan legearen aginduz egon baitzen, Patxi Leuza García jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren eta Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuaren arteko hitzarmena berritzeari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (13. or.).
- Galdera, hotz-kateko sistema duen sukalde-zerbitzua laster ezarriko dela-eta, Nafarroako Ospitaleguneko azpiegiturretan egin beharreko egokitzapenei eta horien kostuei buruzkoa eta enpresa esleipen-hartzailearen eta Osasunbideko nutrizio-espezialisten arteko koordinazioari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxak bere administrazio kontseiluko kide batzuei eta haien familiartekoei baldintza hobekin emandako maileguei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, “SVIsual” bideo-interpretazioko zerbitzuaren proba pilotua eteteari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (15. or.).
- Galdera, merkealdiaren datak aldatzeari eta horrek Nafarroako Parlamentuak atzera botatako azaroaren 21eko 1/2012 Foru Lege-dekretuarekin duen loturari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria, Patxi Leuza García jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako osasun arloko politika orokorrari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako osasun arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Marta Vera andreari:

Ikusi dugu Madrileko autonomia erkidegoan –governua Alderdi Popularrarena da– gertatu dela osasuna pribatizatzeko planik handiena, 6 ospitaleren eta 27 osasun-etxeren kudeaketa pribatizatu baita. Eta UPNk Madrilen emandako laguntzarekin PP Estatuan planteatzen ari den politika hori bera da Nafarroan gero inposatzen ari dena, nahiz eta Nafarroak osasun arloan eskumenak izan.

UPNk apaindu egin nahi du politika horiek Nafarroan ere ezarri izana, baina errealitatea da politika horiek guztiak ari dela aplikatzen.

Parlamentu-talde honek osasun arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio kontseilari Marta Vera andreari, Osasun Departamentuaren epe labur eta ertainerako osasun-eredua azal dezan: pribatizazioak, zerbitzu-zorria, kordainketa, eta abar.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzera egin dezan Gizartetik bazterturik dauden pertsonen zuzendutako gizarteratze eta laneratze egitarauak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren IV. kapitulua indargabetzeko prozesuan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atzera egin dezan Gizartetik bazterturik dauden pertsonen zuzendutako gizarteratze eta laneratze egitarauak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren IV. kapitulua indargabetzeko prozesuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzera egin dezan apirilaren 26ko 130/1999 Foru

Dekretuaren IV. kapitulua indargabetzeko prozesuan.

Orain dela gutxi, laneratze eta gizarteratze zentroen ordezkariak Parlamentura etorri ziren, bere kezka azaltzera apirilaren 26ko 130/1999 Dekretuaren parte bat indargabetzeak sortuko lukeen egoera dela-eta; izan ere, laneratze eta gizarteratze zentro gisa desager litezke, besteak beste.

Gure ustez, zentro horiek, orain arte, lan eskerga egin dute, gizarte-balio ordezkazinez, eta ematen zaizkien laguntza publikoak baino askoz gehiago itzultzen dituzte gizarte-onuretan. Hartara, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du atzera egin dezan Gizartetik bazterturik dauden pertsonen zuzendutako gizarteratze eta laneratze egitarauak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren IV. kapitulua indargabetzeko prozesuan, eta Foru Komunitateko gizarteratze zentroekin negoziatzea dezan egitarau horiek finantzatzeko sistema bat, egungo egoera ekonomikoaren arabera, baina baita krisi testuinguru honetan sortzen ari diren gizarteratze eta laneratze beharrezkoen arabera ere.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 2an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Iragan uztailean, gutxienez 120 hegazti hil ziren pozoituta "Monte Alto", "Montes de Cierzo" eta Cintruenigoko ehiza-barrutietan. Horietako asko, hegazti harrapari babestuak ziren: miru gorriak eta beltzak, sai zuriak, zingira-mirotzak eta sai arreak. Gogoan dugun pozoitze suntsitzaileenetako bat izan da.

Nafarroako Foruzaingoak zenbait pertsona atxilotu zituen, amu pozoituak jarrita hegaztiak pozoitzeagatik faunaren aurkako delitu bat egotzita, eta irekita daude prozedura judizialak.

Kontuan hartuta bost hilabete baino gehiago igaro direla gertakariak izan zirenetik, harrezkero ez dela ezer argitu, gertakariak larriak direla eta Nafarroaren natur ondarearen aurkako balizko delitu bat dela, eta kontuan hartuta, orobat, ustez inplikaturik diren pertsonen arteko batzuek barruti horietan ardurak dituztela, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak ukitutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta pozoiak hondatutako ordena biologikoa leheneratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ehiza-jarduera bertan behera utz dadin, kautelazko neurri gisa, inplikaturik diren barrutietan, harik eta pozoiak zelaian jarri izanak eragindako arriskua prebenitzeko baldintzak eduki arte, fauna babestuari eragindako kaltea konpondu arte eta hondatutako ordena biologikoa leheneratu arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak gara ditzan, kasuko udalek barrutien zaintza kentze aldera, kautelazko neurri gisa, pozoitzearekin ustez zerikusia duten pertsonen edo kolektiboen.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako legedia egokitu dezan abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako legedia egokitu dezan abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamendurekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Parlamentuak orain dela gutxi izapidetu du abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea,

abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

Lege berri horrek organoen emate, erauzketa eta transplantei buruzko guztia kendu du legetik, eta ez du jasotzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Transplanteetarako giza organoen kalitate eta segurtasun arauari buruzko 2010eko uztailaren 7ko 2010/45/UE Zuzentarauan xedatutakoa.

Transplanteetarako giza organoak lortzeko, horien erabilera klinikorako eta lurralde-koordinaziorako jarduerak eta kalitate- eta segurtasun-betekizunak orain dela gutxi arautu dira Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren errege dekretu bidez. Hartara, Europar Batasunaren 201/53 Zuzentaraura egokitu da Estatuaren araudia, Estatu osoan nahitaez bete beharrekoa baita zuzentarau hori.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egokitu dezan Nafarroako legedia abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate- eta segurtasun-betekizunak ezartzen dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Estatuan indarrean den araudira egokitu dezan –1723/2012 Errege Dekretura, alegia– abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu baitzen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Langabezia da espainiarren arazo nagusia. 426.364 langabetu gehiagorekin eta Gizarte Segurantzako 787.240 afiliatu gutxiagorekin itxi da 2012a. Gobernuaren jardunak okerragotu egiten du, egunez egun, arazo hori, eta ondorioak gero eta negatiboagoak dira herritarrentzat. Gobernuaren aurreikuspen berri bakoitzak langabetuen errekor berri bat ezartzen du.

Gizarte Segurantzako afiliazio datuen arabera, 2011n egunero 1.000 enplegu suntsitzetik igaro gara 2012an 2.000 suntsitzera.

Langabezia gora doa, eta langabezia-estaldura % 70etik % 63ra jaitsi da, urriko azken datuen arabera. PPren Gobernuak onetsitako lan-erreforma, krisi garaian iraizpena merkatuz eta erraztuz, galera jasanezina eragiten ari da enpleguari dagokionez.

Europar Kontseiluaren gomendioen aurka, Estatuko Aurrekontu Orokorrek murrizketa drastikoa ekarri dute enplegurako politika aktiboetan; bereziki, autonomia erkidegoentzako transferentzietan, 1.700 milioi euro baino gehiagoko -%54- murrizketekin. Murrizketa horiek amaiarazi egin

dituzte langabetuei enplegua bilatzen laguntzeko politikak; izan ere, orientazio, prestakuntza eta bir-kualifikazio programak ukitzen dituzte.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak izugarri murrizten du langabetuen babesa; izan ere, kendu egiten ditu 45 urtetik gorakoentzako sorospen bereziak, adina 52 urtetik 55era igotzen du, eta gizarteratze errenta aktiboa jasotzen duten onuradunen ia % 90i errenta hori kentzen die. Ehunka mila langabetu inolako babesik gabe geldituko dira hurrengo hilabeteetan.

Gobernuaren politikak Espainiaren gizarte-haustura eragiten ari dira: langabezia handiagoa, babes txikiagoa, eskubide gutxiago eta, Erkidegoaren gomendio ororen aurka, langabetuek lana aurkitu ahal izateko politika aktibo gutxiago.

Testuinguru honetan, lehen mailako beharrian bat da Prepara programa 1/2011 Errege Lege Dekretuan jasotzen zen bezala mantentzea. Programa horrek sobera erakutsi du bere eraginkortasuna, eta 450.000 langabetu baino gehiagoren enplegarritasuna hobetzea ekarri du. Programa hori oinarritzen da orientazio, prestakuntza eta bir-kualifikazio arloko neurri aktiboen konbinazioan, eta, aldi berean, errenta-laguntza bat ematen dio langabetuari.

Ezin dugu onartu gaur egungo egoeran Prepara plana desagertzea, zeren hori baita langabezia agortzen duten herritarrek bizirauteko duten iturri bakarra, eta 400 euro horiek baizik ez dute bizi ahal izateko.

Enplegurako trantsizioa ziurtatze aldera, enplegurako politika aktiboen eta laguntza ekonomiko osagarrien arteko koordinazioa areagotze aldera eta gizarte bazterkeria ekidite aldera aurkeztu dugu hurrengo

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du gutxienez ere sei hilabetez luza dezan, 2013ko otsailetik aitzina, langabezia-prestazioa agortu duten pertsonen lanbide-birkualifikazioko programa, 1/2011 Errege Lege Dekretuaren arautu den bezala.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatatik kendu den parte itzultzekoa.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, haien soldatatik kendu den parte itzultzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legeak zioen azalpenean dio defizitaren kontrolari, lehiakortasunari eta garapenari buruzko zenbait baldintza betetzen baldin badira, Nafarroako langile publikoekiko harremanetatik sortzen diren betebeharrak betetzeko modua egonen dela.

Kontuan izan beharra dago ordainsari bat kentzeaz hitz egiten zuela Nafarroako Gobernuak, Parlamentura lehenago igorritako foru lege proiektuan. Eta ordainsari bat kendu ere kendu du, urtarrilaren 2ra nahita atzeratuta erosahalmenaren galera dela-eta aldi baterako osagarri pertsonal bat 2012rako eraginarekin sortu zuen Foru Legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki proposamena:

Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako negoziazio mahai orokorrean dauden sindikatuekin, ezartze aldera noiz eta nola itzuliko zaien sektore publikoko langileei 2012ko abenduko beren nominetatik kendu zaien lansariaren parte.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute

Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina. Mozio hori 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937

Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari. Mozio hori 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen baitio bere egin ditzan Nafarroako Parlamentuaren erabakiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak kontuan ez hartzeko erabakia hartu duela adierazi du publikoki Nafarroako Gobernuo lehendakari Yolanda Barcina Angulo andrea buru duen UPNren Gobernuak, eta hori eraso demokratiko eta politiko onartezina da, ezin larriagoa.

2. Nafarroako Parlamentuak UPNren Nafarroako Gobernua erreprobatzen du, printzipio

demokratikoak eta instituzionalak larriki urratzeagatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio bere egin ditzan Nafarroako Parlamentuaren erabakiak, agindu demokratiko saihestezina diren aldetik, eta bere ideia politikoak inposatzeko jarrerari utz diezaion, Nafarroako gizartearen gehiengoak ez baitu horiekin bat egingen.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deklaratzeko baitu autonomia erkidegoek 2013rako duten defizit-betebeharra malgutzearen komenigarritasuna.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

1. Komenigarria dela autonomia erkidegoek 2013rako duten defizit-betebeharra malgutzea.

2. Beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak, bere eskumenak baliatuz, Espainiako Gobernuari neurri hori har dezan eskatzea.

3. Baliagarriak direla hortik sortzen diren bitartekoak, ekonomiaren hazkundea eta Ongizatearen

Estatuaren iraungarritasun handiagoa ahalbidetuko duten neurriak taxutzeko.

4. Eskubide sozialen eta enplegu politiken kalteetan defizit-helburuei soilik erreparatzen dien politika ekonomiko basatiaren aurka dagoela Parla-mentua, zeinak berresten baitu Nafarroak eskubidea duela bere politika ekonomiko propioak definitzeko, bere autogobernuaren esparruan.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Cementos Portland enpresako langile den Epifanio Martín jaunarekiko kezka adierazten baitu, lan arrazoiengatik gose greba egiten ari da-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Cementos Portland enpresako langile den Epifanio Martín jaunarekiko kezka eta elkertasuna adierazten ditu, lan arrazoiengatik 27 egungose greba egiten darama-eta; halaber, elkertasuna adierazten die enplegu-erregulazioko espedienteek –bai lan harremana

bukatzeko, bai lan harremana eteteko espedienteek– ukitutako Nafarroako langile guztiei.

Nafarroako Parlamentuak enpresako arduradunei eta langileari berari eskatzen die konponbide bat negoziatu dezaten, egoera zail eta kezagarri honi amaiera eman ahal izateko”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak asmorik duen Nafarroako Kutxatik kobratu dituen dietak itzultzeko, haren organoetan legearen aginduz egon baitzen.*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak asmorik duen Nafarroako Kutxatik kobratu dituen dietak itzultzeko, haren organoetan legearen aginduz egon baitzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Patxi Leuza García, foru parlamentaria den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2012ko abenduaren 27an, Nafarroako Gobernuko lehendakariak prentsaurreko batean adierazi zuen legeak hala agintzen duelako egon dela Nafarroako Kutxaren organoetan. Adierazpen horietatik ondoriozta daiteke bere borondatearen kontra egon zela organo horietan.

– Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ba al du asmorik legeak hala aginduta dietetan 2004tik aitzina jaso dituen 246.000 euroak itzultzeko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren eta Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuaren arteko hitzarmena berritzeari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren eta Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuaren arteko hitzarmena berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak, Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen elkargoekin lankidetzan, doako zerbitzua eman izan du orain arte –informazioa, aholkua, lagun egitea eta aholkularitza juridikoa–, sexu erasoen edo/eta tratu txarren eta diskriminazio kasuetan. Bai eta ondoko kasuetan ere: familia-zuzenbidea, banantze eta dibortzio prozesuak, bikote-eskubideak eta -betebeharrak, ezkontideen eta izatezko bikoteen banantze prozesuetako pentsoiak ez ordaintzea eta Doako Laguntza Juridikorako eskubidea (kasua denean).

Lankidetz hitzarmen hori luzatu gabe zegoen urtarrilaren 2an.

Galdera:

- Nafarroako Gobernuak zer asmo dauka Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzuari dagokionez, zerbitzu horren eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren arteko hitzarmena sinatu gabe zegoenez 2013ko urtarrilaren 2an, eta, hartara, biktimak Nafarroako abokatuen borondateari esker artatuko direnez?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, hotz-kateko sistema duen sukalde-zerbitzua laster ezarriko dela-eta, Nafarroako Ospitaleguneko azpiegituretan egin beharreko egokitzapenei eta horien kostuei buruzkoa eta enpresa esleipen-hartzailearen eta Osasunbideko nutrizio-espezialisten arteko koordinazioari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, hotz-kateko sistema duen sukalde-zerbitzua laster ezarriko dela-eta, Nafarroako Ospitaleguneko azpiegituretan egin beharreko egokitzapenei eta horien

kostuei buruzkoa eta enpresa esleipen-hartzailearen eta Osasunbideko nutrizio-espezialisten arteko koordinazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ospitaleguneko gaixoak elikatzeko zerbitzuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak hotzeko sukalde-sistema hemendik gutxira ezarriko duela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zer egokitzapen egin behar izan dira edo egin beharko dira Nafarroako Ospitalegunearen azpiegiturretan? Zer kostu izanen dute? Nola kudeatuko da koordinazioa enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko nutrizio-espezialisten artean?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Kutxak bere administrazio kontseiluko kide batzuei eta haien familiartekoei baldintza hobeekin emandako maileguei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxak bere administrazio kontseiluko kide batzuei eta haien familiartekoei baldintza hobeekin emandako maileguei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko.

Nafarroako hedabide batek orain dela gutxi argitaratu du Nafarroako Kutxako zenbait kontseilari eta senitartekok Nafarroako Kutxaren maileguak jaso dituztela "merkatukoak baino baldintza hobeean". Aipatu hedabidean azaltzen den beza-

lakoak balitz, egiaz, egoera, ordainsari bat sortua litzateke espezetan, merkatuko interesaren eta mailegu-hartzaileei aplikatutako interesaren arteko aldea adinakoa.

Hauek dira galderak:

– Nafarroako Kutxak diru-kopururik sartu al du Foru Ogasunean, espezetan emandako ordainsariengatik kontura egindako sarrera gisa, entitateko kontseilariari eta horien senitartekoei emandako maileguak direla eta?

– Baiezkoan, zein da sartutako diru-kopurua? Ogasun Departamentuak berezko dituen egiaztapen eta jarraipen jardueren ondorioz, arrazoizkotzat jo da Nafarroako Kutxak hasiera batez sartutako zenbatekoa? Egin al da uneren batean likidazio osagarririk?

– Ezezkoan, kasuan kasuko egiaztapenak egin ostean, Ogasun Departamentua bat al dator irizpide horrekin?

– Kasua bada, Ogasun Departamentuak egiaztatu al du maileguak baldintza hobeean jasotzearen ondorioz espezetan emandako ordainsariak jaso dituzten kontseilariak eta senitartekoen ordainsari horiek sartu dituztela beren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, “SVIsual” bideo-interpretazioko zerbitzuaren proba pilotua eteteari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, “SVIsual” bideo-interpretazioko zerbitzuaren proba pilotua eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltza-

reko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak oztupoak kentzearen aldeko apustua egiten du, ezgaitasuna duten pertsonen mugikortasun pertsonal eta soziala errazteko. “SVIsual” bideo-interpretazio zerbitzuaren proba pilotu bat abian jartzeak ere helburu bera dauka.

Proba pilotu hori egin ez denez, hauxe jakin nahi dugu:

Zergatik gelditu da bertan behera “SVIsual” zerbitzuaren proba pilotua eta zer aurreikuspen dago proba hori abian jartzeari dagokionez?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, merkealdiaren datak aldatzeari eta horrek Nafarroako Parlamentuak atzera botatako azaroaren 21eko 1/2012 Foru Lege-dekretuarekin duen loturari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, merkealdiaren datak aldatzeari eta horrek Nafarroako Parlamentuak atzera botatako azaroaren 21eko 1/2012 Foru Lege-dekretuarekin duen loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinnek ondokoa adierazi zuen 2013ko urtarrilaren 9an bertako prentsan argitaratutako artikulu batean:

1. “Abenduaren 20an, Nafarroako Parlamentuko oposizioko taldeek erabaki zuten merkatarien eskaria ez entzutea; halatan, Nafarroako Gober-

nuak onetsitako lege dekretua indargabetu zuten eta ziurgabetasun egoeran jarri zuten sektorea”

2. “Nafarroako Parlamentuaren erabaki honen lehendabiziko ondorioa izan da Nafarroako zenbait dendak aurreratu egin dutela merkealdia”

Baieztapen horiek ikusita, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Parlamentuko iragan abenduaren 20ko Osoko Bilkuran bazter utzitako azaroaren

21eko 1/2012 Foru Lege Dekretuko zer partetan aldatzen dira Nafarroako legedi indardunean jasotako merkealdi-datak? Zer zerikusi dago aipatu dekretuaren, Nafarroako Parlamentuak dekretua bazter utzi izanaren eta 2013ko urtarrilaren hasieran Nafarroan merkealdiaren hasierak sortutako kaosaren artean?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Koldo Amezketza Díaz

Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, “Aralur, SL” enpresak gaur egun Ziordian garatzen jarraitzen duen jarduera etete aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza Abaurrea jaunak idatziz erantzun dezan:

Kontseilari jaunak agerraldia egin zuen iragan urriaren hasieran, parlamentari honek eskatuta, Aralur, S.L. enpresaren egoera ezohikoari buruz, eta Ziordiko Udalak, 2012ko urriaren 25ean, enpresa horri buruzko eskaera formal bat egin zion Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamen-

tuari. Bertan, udalak berriz ere informatu zuen enpresa horrek, zeinak hondakinak kudeatzeko baimena jaso baitzuen Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko buruaren 2012ko maiatzaren 11ko ebazpen bidez, hondakinen pilaketa handi-handiak egiten jarraitzen duela bere nabearen ondoko finketan, ingurumenarekiko kalteak eta eragozpenak ekiditeko beharrezkoak diren gutxienezko baldintzak bete gabe. Pilaketa horiek –gogorazi beharra dago Gipuzkoatik heldu diren bio-hondakinen soberakinak direla– lur gainean egiten dira eta, itxura batean, ez dira erabiltzen eta ez zaie irtenbiderik ematen.

Hori dela eta, udalak data horretan eskatu zion Departamentuari jarduera hori geldiaraztea erabaki dezala, behar bezalako kudeaketa egiteko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez diren bitartean.

Ingurumen Departamentuak berak aitortzen du, Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoaren Ataleko buruak udalari azaroaren 12an igorritako jakinarazpen baten bidez, badakiela “enpresa horren funtzionamenduak urratu egiten dituela bere jarduera-lizentziako zenbait baldintza, isurketen eta hondakinen arlokoak, eta ez daukala nabe berri bat irekitzeko lizentziarik; alegia, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea urratzen ari dela ustez”. Horrenbestez, Ziordiko Udalari eskatu zion espresuki adieraz dezan, aipatu legea garatze aldera abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretu bidez onetsitako Erregelamenduko 131.2 artikuluan ezarritakoan oinarrituta, gehienez ere hilabeteko epean zehapen espediente bat abiarazteko boron-

datea, bestela Departamentuak ekinen baitio bere zehapen-eskumenari.

Epe horretan, 2012ko abenduaren 4ko datarekin (2012/502108 erregistroko zenbakiarekin), udal horretako alkatetzak departamentuari informatu zion Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak 148/2011 prozedurari buruzko epaia eman zuela 2012ko azaroaren 8an, zeinetan adierazten baita Ziordiko udalak enpresari behar bezala ukatu ziola eskatutako jarduera-lizentzia. Komunikazio horretan berean, Ziordiko alkateak espresuki eskatzen zion zuk zuzentzen duzun departamentuari

hartu beharreko neurriak har ditzan, behar diren baldintzak bete gabe enpresa egiten ari den hondakin-pilaketa ekiditeko, eta hartu beharreko heratsatze- eta zehatze-neurriak har ditzan.

Hori guztia kontuan hartuta, parlamentari honek ondoko galdera egin nahi du:

1. Zure departamentuak zer neurri hartu ditu Aralur, S.L. enpresa Ziordiko udalerrian gaur egun oraindik ere egiten ari den jarduera eteteko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko non egingen den Iruñeko DBHko ikastetxe berria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Non kokatuko da Iruñean DBHko ikastetxe berria?

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzko galdera erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

